

KANALAK

Gure produktua bi modu ezberdinetan eskuratzeko aukera izango dute bezeroek. Alde batetik, webgune bat sortuko dugu non gure produktuak salgai egongo diren, eta bestalde forum sport enpresarekin frankizia egingo dugu, hau da, gure produktuak haien dendetan saltzearen truke, guk diru kopuru bat emango diegu. Webguneari dagokionez, gogerygou izena izango du. Interneten bilatzailean bilatu ondoren, webgunean sartu eta sarrera bat agertuko da. Bertan botilaren argazki bat eta botilari buruzko informazio ugari agertuko da. Gainera, goikaldean webgunearen atal ezberdinak ikusi ahalko dira. Horrela, atal ezberdinak sakatzeko aukera izango da, eta bakoitzean informazio ezberdina agertuko da.

Forum Sporti dagokionez, haiekin harremanetan jarriko gara, eta bi enpresen artean akordio batera iristen saiatuko gara, horrela gure asmoak haiekin partekatuz eta gure proposamena adieraziz. Forumekin akordiora iritsita, gure produktua bertan salgai jarriko dute, eta forum kirol arloko denda denez, gure bezeroengana iristeko modu egokia da. Gure asmoa forumekin harreman sendo bat finkatzea da eta haiekin denbora luzean zehar lan egin ahal izatea.



Forumen erosketa egiterako orduan erosleek ez dute ordaintzeko arazorik izango, dendan fisikoki ordainduko baitute. Baina internet bidez erosterako orduan, ordaintzeko modua ere internet bidez izango da. Dena modu seguruan izango da, inungo arazorik gabe.

Garraioari dagokionez, forumen dendara joan ezkeror, normala den bezala ez da garraiorik behar, dendan erosiko baitu, baina norbaitek forum webgunetik zerbait erosterako orduan eta etxera bidaltzeko eskatuz gero, forum enkargatuko da garraio horretaz. Gure webguneari dagokionez, eroseketa internet bidez izango da, modu seguruan, eta garraioari dagokionez guk egin behar dugu garraioa, eta horretarako enpresa bat kontratauko dugu, garraioak egingo dituen.

Bestalde, botilen aktualizazioak egongo dira. Horregatik, botila berri hobe bat ateratzerako orduan, produktu zaharra entregatuz gero, produktu hobetuaren deskontua egingo da. Produktu zahar hauek, forum dendetan entregatu ahalko dira.

